

GIZARTE ZERBITZUEN ESTADISTIKA

Emaitzen aurrerapena

Aurkibide

1. ENTITATEAK ETA ZENTROAK	6
1.1. Entitateen eta zentroen ezaugarriak eta tipologia	6
1.2. Entitateetako eta zentroetako langileak	8
1.3. Entitateen eta zentroen gastua	11
1.4. Sistemaren finantzaketa	13
2. EGOITZAK	15
2.1. Zentroak eta plazak	15
2.2. Erabiltzaileak	17
2.3. Egoitzetako langileak	18
2.4. Egoitzen gastua	19
2.5. Egoitzen finantzaketa	22

Gizarte Zerbitzuen Estatistika

Eustatek 1988az geroztik parte hartzen du Euskal Aeko gizarte-zerbitzuen estatistikan; horregatik, sektore horren egoera eta aldaketak 15 urtean zehar ezagutu ahal ditugu.

Sektorearen bilakaerari behatzeko, kontuan izan behar dira eskaintzen diren emaitzen arloan izandako aldakuntzak. Gizarte-zerbitzuak, beste arlo batzuen bidez betetzen ez diren gizarte-beharrizanei arreta emateko baliabide eta jarduketa gisa hartuta, sistema irekia dira. Estatistika hasi zen urtetik, hots, 1988tik, zenbait zerbitzu sistematik atera dira, beste erakunde batzuek hartu dituzten heinean. Halako zerbitzuak izan dira, besteak beste, haurtzaindegiak eta adingabeak zuzentzeko zentroak. Hala ere, gizarte-zerbitzuetarako gastuak gehitzen jarraitu du, jarduketa berriak egin baitira. Jarduketa horien helburuak, oro har, ekonomia-prestazioak eta edadetuak izan dira, hala nola, pobrezia-aren aurkako borroka-planak, eguneko laguntza-zentroak, familiei atsedeen emateko etxeak eta abar.

Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta Eudelek akordio bat sinatu zuten, 2001. urteko otsailean, gizarte-zerbitzuen inguruko eskumenak banatzeko. Horren ondorioz, 2002. urtean, estatistikaren erreferentzia-urtean, hainbat jarduketa egin zen sektorea berrantolatzeko, eta honako printzipio hauek bete ziren:

- Gai, zerbitzu edo programa bakoitzaren eskumena administrazio bakar bati egokituko zitzaion.
- Gauza diren edadetuak artatzea udalen ardura izango zen, eta gauza ez direnak artatzea, ordea, foru-aldundien ardura izango zen.
- Eskumenak administrazio batetik bestera igarotzean, baziren gizarte-zerbitzuak ez ziren etengo, baizik eta aldaketak arian-arian egingo ziren. Trantsiziokotzat joko ziren, beraz, 2001. eta 2002. urteak.

Azterketa honetako datuen arabera, sektorearen gastua, guztira, 915,7 milioi euro izan zen, aurreko urtean baino 127 milioi euro gehiago; hartara, 2002an, sektoreak gehitu egin zuen ekonomia osoan zuen parte-hartzea, eta BPGaren %2,0ra iritsi zen.

Urteko tasa metatua %9,1ekoa izan zen, eta azken hamarkadako (1992-2002) hazkunde nominalak %2,3an gainditu zuen ekonomian oro har izan zen hazkundera. Aldi horretan, gizarte-zerbitzuetan eginiko gastua bikoiztu egin zen, eta gehikuntza metatua %146 izan zen gastu arruntean, eta %123 familientzako transferentzia zuzenetan. Gastuen, sarreren eta langileen aldagaietan egiazta daiteke bilakaera hori. Aldi horretan sektoreak izan zuen ibilbideari buruzko laburpen-taulan azaltzen dira aldagai horiek.

Ekonomia-unitate baliokideetan (2002ko euroak), biztanleko gastuaren tasa metatua, 1992az geroztik, %6 urtean izan zen, eta guztira %71 gehitu da; hala, bada, 2002an gastu hori 444 euro izan zen, 10 urte lehenago baino 190 euro gehiago. Hala ere, 12 urte atzera egin behar da ikusteko, prezio finkotan, gastuaren zifrak bikoiztu egin direla. Administrazio publikoek sistemara egin zuten ekarpena 2002an 312 euro biztanleko izan ziren, 10 urte lehenago baino 128 euro gehiago; azken urte hori bakarrik hartuta, ahaleginak sortu zuen gehikuntza 35 euro biztanleko izan zen.

Aurreko urtearen aldean, 2002. urtean gastua %16 igo zen, eta familientzako diru-prestazioen programak nabarmendu ziren gastu horretan (%23), pobrezia-aren aurkako borroka-planaren ondorioz sorturiko prestazioak hazi egin baitziren: Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarrera (GGD) eta Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL). Azken horiek gizarte-zerbitzuen guztizko gastuan duten parte-hartze kuota %13ra iristen da. Gainera, familientzako diru-prestazioen programetan, Eusko Jaurlaritzak

finantzatzen zuen programa bat agertu zen, seme-alabak dituzten familientzako laguntzak, hain zuzen. Programa horrek 14 milioi euroko gastua sortu zuen, eta jaiotzengatik ematen diren laguntzak arautzen zituen.

Azkenik, 2002. urtean honako hauek nabarmendu behar dira:

- Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarrerak —edo Oinarrizko Errentak— (91,9 milioi euro) %31n gehitu zuen gastua, eta haren finantzaketa jada ez zegokion Eusko Jaurlaritzari soilik, hiru lurralde historikoetan Gutxieneko Bermearen Laguntza-prestazioa delakoa ezarri baitzen, hau da, Oinarrizko Errenta osatzen duen foru-aldundien prestazioa.
- Gizarte-larrialdiko Laguntzetan, 25,7 milioi euro gastatu ziren, 2001ean baino %24 gehiago. Laguntza horien finantzaketa Eusko Jaurlaritzari baino ez zegokion ordura arte, baina urte horretan erakunde kudeatzaileak parte hartzen hasi ziren.
- Inflexio-puntua atzematen da kontribuziokoak ez diren prestazio tradizioaletan (Kontribuziokoak Ez diren Pentsioak, Gizarte Ongizaterako Funtsak, eta Ezgaiak Gizarteratzeko Legearen Laguntzak), lehen aldiz, haien gastuaren zifrak jaitsi egin baitziren. Jaitziera horren arrazoia laguntza haren hartzaile izandakoek Oinarrizko Errenta osatzen duten prestazioak eskatu izana izan liteke, diru-kopuru handiagoak izaki.
- Zahar-etxeetan (gizarte-zerbitzuetako baliabide hori oinarrizkoa da, bai eta haien dinamizatzaila ere), 881 plaza sortu ziren, eta gastua %13 gehitu zen; alegia, kopuru absolutuetan, aurreko urtean baino 26,4 milioi euro gehiago gastatu ziren. Hori izan zen familientzako diru-prestazioen programak gaintitu zituen baliabidea, gastuari dagokionez. Zahar-etxeei, hain zuzen, %25,4 dagokie gizarte-zerbitzuen gastu osoan.



1. taula Aldagai nagusien bilakaera, 1992-2002 aldirako (mila euro uneko preziotan)

	2002	2001	1992	Urte arteko (02/01)	Urteko tasa Metatua (02/01)	Aldakuntza-tasa (02/92)
Gastuak guztira	915.747	789.051	382.360	16,1	9,1	139,5
Gastu arruntak	671.719	587.307	273.445	14,4	9,4	145,7
Ordainsariak	340.635	301.728	183.759	12,9	6,4	85,4
Bestelakoak	331.084	285.579	89.686	15,9	14,0	269,2
Familietarako transferentziak	202.511	164.562	90.781	23,1	8,4	123,1
Kapital-gastuak	41.517	37.181	18.135	11,7	8,6	128,9
Entitate eta zentro publikoetako gastuak	570.144	493.093	233.150	15,6	9,4	144,5
Entitate eta zentro pribatuetako gastuak	345.603	295.958	149.210	16,8	8,8	131,6
Finantzaketa publikoa	642.289	553.892	276.927	16,0	8,8	131,9
Finantzaketa pribatua	273.458	235.159	105.434	16,3	10,0	159,4
Biztanleko gastua (euro)	444	382	182	16,3	9,4	144,5
GIZA BALIABIDEAK	30.621	29.258	19.155	4,7	4,8	59,9
Bertako langileak	16.797	15.804	10.477	6,3	4,8	60,3
Bertako langileak (DOB)	15.541	14.597	9.525	6,5	5,0	63,2
Borondatezkoak	13.824	13.454	8.678	2,8	4,8	59,3
BALIABIDE MATERIALAK						
Entitate-kopurua	1.224	1.159	942	5,6	2,7	29,9
Zentro-kopurua	2.305	2.215	1.502	4,1	4,4	53,5
Egoitza-kopurua	633	603	331	5,0	6,7	91,2
Barruko plartzak	17.188	16.184	11.812	6,2	3,8	45,5
GASTUA TIPOLOGIAREN ARABERA						
Biztanleria osoa	340.790	286.993	151.832	18,7	8,4	124,5
Familietarako transferentziak	198.050	161.533	90.693	22,6	8,1	118,4
Haur-Gazteak (1)	29.939	25.952	35.298	15,4	-1,6	-15,2
Egoitzak	22.417	20.044	12.296	11,8	6,2	82,3
Zaharrak	268.563	237.494	104.402	13,1	9,9	157,2
Egoitzak	232.156	205.739	90.472	12,8	9,9	156,6
Ezgaitasunak	220.325	194.613	73.182	13,2	11,7	201,1
Egoitzak	39.352	35.258	20.716	11,6	6,6	90,0
Lanbide-zentroak eta EZB (2)	145.357	129.440	32.996	12,3	16,0	340,5
Emakumeak	5.380	4.008	1.423	34,2	14,2	278,1
Bastertuak	50.750	39.991	16.223	26,9	12,1	212,8
BPG (mila eurotan)	44.927.869	42.961.767	23.189.464	4,6	6,8	93,7
% BPG	2,0	1,8	1,6	11,0	2,1	23,6



(1) 1992an haurtzaindegiak gizarte-zerbitzutzat hartu dira, 19.785 mila euroko gastuarekin. 1995etik aurrera jada ez dira halakotzat jo.

(2) Enplegu-zentro bereziak



1. grafikoa. Gizarte-zerbitzuetako biztanleko gastuaren bilakaera (euro)



2. grafikoa. Gizarte-zerbitzuetako gastuaren bilakaera. (milioi eurotan)



2B. grafikoa. BPGaren eta guztizko gastuaren bilakaera, (zenbaki indizea, 1992. urtean oinarrituta)



1. Entitateak eta zentroak

1.1. Entitateen eta zentroen ezaugarriak eta tipologia

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuak 1.224 entitateen inguruan egituratu ziren 2002. urtean. Gizarte-zerbitzuetako entitate horien 2.305 zentroen bidez, sistemak eskainitako gizarte-zerbitzuak bideratu ziren.

Aurreko urtearen aldean, 2002. urtean gizarte-zerbitzuetan aritu ziren entitateen hazkundera %5ekoa izan zen. Zentro-kopuruari dagokionez, hazkundera %4koa izan zen, aurreko aldi bako bako puntu bat gutxiago.

2. taula: Gizarte-zerbitzuetako entitateen eta zentroen banaketa 2002. urtean.

	Euskal AE			ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
	Guztira	Publikoak	Pribatuak			
Entitateak	1.224	314	910	231	659	334
%	100	26	74	19	54	27
Zentroak	2.305	941	1.364	467	1.134	704
%	100	41	59	20	49	31

Banaketa geografikoari begiratu gero, Euskal Aeko entitate eta zentroak herririk handienetan biltzen ziren, biztanle-banaketa antzeko proportzioan. Hiriburu-faktorea Araban zen nabarmenagoa, zentro guztien %62 Gasteizen baitzeuden. Bizkaian ere antzeko kontzentrazio-maila zegoen. Hala, Bilbo Handian zentroen %70 zeuden, baina hiriburuan zentroen %39 baino ez zeuden. Gipuzkoako eredu sakabanatuagoa da; zentroen %31 hiriburuan zeuden, eta %49 Donostialdean. Hala ere, banaketa hori ez zen homogeneoa, oinarriko unitateak, klubak eta erretiratu elkarteak herri gehienetan banatuta baitzeuden; eta oinarriko unitateak (gizarte-laguntzako oinarriko sarea) dira, hain zuzen, herritarrek gizarte-prestazio eta zerbitzu espezializatuarentako sistema horretan duen atea.

Euskal Aeko entitateen tipologia dagokionez, bi eredu kontrajarri zeuden; alde batetik, makroentitateak zeuden, kopuruz gutxi, %1 eta %5 bitartean (erabilitako aldagaien arabera), eta baliabide-kontzentrazio maila handiarekin. Beste muturrean, mikroentitateak ziren; oso ugariak izan arren (%80 inguru), baliabideen %20 baino gutxiago erabili zuten.

Ugaritasun hori erraz ulertzen da sektore pribatuan, kontuan hartzen badugu gure gizarte elkarteek garrantzi handia hartu dutela (hor aurkitzen dute erabiltzaileek arazo komunak konpontzeko bidea), bai eta zahar-etxe txikiak kudeatzen dituzten enpresak gero eta gehiago izan direla ere. Sektore publikoan, herri txikiak udalek eta zahar-egoitzak kudeatzeko fundazio publikoek osatzen zituzten entitate txiki horiek. Egoera hori Gizarte Zerbitzuen Legearekin sustatutako gizarte-ehunaren parte zen, honako alderdi hauek kontuan hartzen baititu: «borondatezko gizarte-lana eta mozkin ateratzeko asmorik gabeko entitateak sustatzea», «ekintza pribatuaren parte-hartze arautua gizarte-zerbitzuen kudeaketan», eta udalei, tamaina edozein dela ere, gizarte-zerbitzuen alorrean «deszentralizazioko, malgutasuneko eta hiritarreganako hurbiltasuneko irizpideen arabera» emandako eskumenak.


Gizarte-zerbitzuen esparruan ziharduten entitateen artean, gehienak zelula bakarrek ziren (%79), hau da, zentro bakar baten bidez eskaintzen zituzten zerbitzuak. Entitateen %5ek baino ez zuten bost zentroko baino gehiagoko sarea; entitate horiek, ordea, sistemari zegokion gastu guztiaren %57

biltzen zuten. Multzo txiki horretan, foru-aldundien eta Euskal Aeko hiri jendetsuenetako udalen sareak daude.

Langile-kopuruari dagokionez, berriro ere entitate txikien garrantzia atzematen da, gehienek (%70) 5 langile baino gutxiago baitzituzten; 100 langile baino gehiagoko 20 entitatez (%2) osatutako beste talde txiki bat ere bazegoen. Azken horiek landun-kopuru zein gastu gehienak biltzen zituzten: %52 eta %60, hurrenez hurren.


Diruaren aldetik, entitateen erdiak (%48) 30.000 euroz beherako gastua hartu zuten, hau da, gastu osoaren %1; bestalde, 20 entitatek (%2) 6 milioi euroz gorako gastua izan zuten, hots, sistemaren gastu osoaren erdia baino gehiago (%63). Kontzentrazio horrek Araban zuen kopuru handiena, entitateen %1ek (guztiak publikoak) guztizko gastuaren %77 izan baitzuten; kopuru txikiena, berriz, Gipuzkoan izan zen, entitateen %2k gastuaren %61 egin baitzuten.

3. grafikoa. Zentroak, biztanleri motaren arabera (%2002)



Arreta ematen zitzaion biztanleria-motaren arabera, zentroen %44 zaharrekin aritzen zen; %21, ezgaituetan; eta %14, biztanleria osoarentzat ziren. Atal horretan oinarritzko unitateak eta drogamenetasunei aurrea hartzeko zentroak daude sartuta. Gizarteko gainerako arloek (haurrak eta gazteak, emakumeak eta bastertuak) gainerako %20 bildu zuten.

4. grafikoa. Zentroak, biztanleri motaren arabera (%2002)



(*) Lanbide-zentroak eta enplegu-zentro bereziak.

Zentroen tipologia oso zabala da. Kopuruz, egoitza-zentroek (633) osatzen zuten talderik handiena, eta horiek, eguneko zentroekin batera (524), eskaintzen ziren zentroen erdia ziren.


1.2. Entitateetako eta zentroetako langileak

Arloak, guztira, 16.797 laguni eman zien lana 2.002. urtean, eta, horien artean, 11.411 (%68) emakumezkoak ziren. Kopuru erlatiboetan, horrek esan nahi du landunen %1,9k horretan lan egiten zutela, eta kopuru hori %3,3ra iristen zen emakumeen artean. Lurraldeka, Araban izan zen ehunekorik handiena, landunen %2,1 izan baitziren.

Talde horrek egindako lana, bestalde, oro har sektore pribatuan (%99) borondatez lan egiten aritu ziren 13.824 boluntariok osatu zuten, bai eta erabiltzailearentzako zuzeneko arreta eskaini zuten 5.053 langile azpikontratatuak ere. Langile azpikontratatuak erdiak (2.555) erabiltzaileen etxeetan egin zuen lan, etxeko laguntzako zerbitzuari dagozkion berezko eginkizunetan. Langile azpikontratatuak gehitzen baditugu, enplegu-kopurua %30 gehitzen da.

Langile-kopurua dedikazio osoko baliokidetzaren (DOB) arabera kalkulatu badugu, 15.541eko kopurua ateratzen zaigu; %7ko jaitsiera da, arlo horretan lan egiten duten pertsonen dagokien guztizko kopuruaren aldean. Lanaldi laburreko langileak, proportzioan, gehiago izan ziren eguneko zentroetan eta zerbitzu tekniko orokorretan (udaletako oinarrizko unitateak eta droga-mendekotasunari aurrea hartzeko zerbitzuak). Izan ere, eguneko zentroetan, DOBean kalkulatuak langileen kopurua %22 txikiagoa izan zen, pertsona fisikoen aldean; eta zerbitzu tekniko orokorretan, DOBeko langile-kopurua %34 txikiagoa izan zen.


5. grafikoa. Bertako langileak, jardueraren arabera (%2002)




Langileak eginkizunaren arabera sailkatuz gero, talderik handiena zuzeneko arretako langile espezializatuena zen (%50), eta, talde horren barruan, osasun-langileak (medikuak, OLT, klinikako laguntzaileak eta fisioterapeutak) ziren nagusi gainerakoen aldean, langileen guztien %23arekin. Aurreko urtearen aldean, klinikako laguntzaileen kategorian hazi zen gehien langile-kopurua.

Halaber, enplegu-zentro berezietako —hots, lan babestuko enpresetako— erabiltzaile ere diren langileen kopurua handia da. Enpresa horiek Elbarriak Gizarteratzeko Legearen babesean sortu ziren, eta haien xedea ezgaituak lanaren bidez gizarteratzea da. Horrexegatik, atal berezi honetan sartu ditugu, gainerako langileetatik bereizita. Izan ere, zentroaren xedeari jarraituta, erabiltzaile zuzenak dira; baina bestalde, enpresaren ezaugarriak direla kausa, langile ordainduak dira aldi berean. Talde horrek 4.372 langile izan zituen, eta langile enplegatuen %26 hartzen zuen.

Talde horretako langileek lan egiten zuten entitateen eta zentroen titulartasunari begira, %34k sare publikoan jardun zuten, eta gainerakoek (%66), sare pribatuan. Langileen banaketa, lurraldeka, honako hau izan zen: %17 Araban, %46 Bizkaian eta %37 Gipuzkoan. Gipuzkoan lortutako ehuneko altuen zergatia izan zen enplegu-zentro berezietan enplegu babestuen kopuru handia sortzea. Izan ere, langile-kategoria hori alde batera uzten badugu, langileen banaketa horrela geratuko litzateke: %41 sektore publikoan eta %59 sektore pribatuan. Banaketa hori bat dator arestian aztertu dugun zentro-banaketaekin eta gauza bera gertatzen da herrialdekako banaketarekin: Araban %19, Bizkaian %52, eta Gipuzkoan %29.

6. Grafikoa. Bertako langileak, biztanleri motaren arabera (%2002)


Zerbitzua ematen zitzaion biztanleria-motaren arabera, langile gehienek bi gizarte-talderi arreta eskaintzen jardun zuten: 7.358 langilek (%44) ezgaituei eskaini zieten arreta (%18 laguntza-jarduera bete zuten eta %26 enplegu-zentro berezietako erabiltzaile langileak ziren); eta 6.145 langilek (%36) zaharrak artatzen jardun zuten. Langileen %20k baino ez ziharduten gainerako gizarte-taldeezi arreta ematen.

7. grafikoa. Bertako langileak, zentro-motaren arabera (%2002)



(*) Lanbide-zentroak eta enplegu-zentro bereziak.

Langileak aritzen ziren zentro-motaren arabera, gehienak egoitzetan (%44), eta lanbide-zentroetan eta enplegu-zentro berezietan (%33) aritzen ziren. Aldiz, eguneko zentroek, elkarteek eta bestelakoek, nahiz eta zentroen erdia hartzen zuten, langileen %11 baino ez zituzten enplegatzen, baina boluntarioen %79 biltzen zituzten.

1.3. Entitateen eta zentroen gastua

Euskal AEn, gizarte-zerbitzuen sistemaren beharrei erantzuteak 915,7 milioi euroko ahalegin ekonomikoa eskatu zuen, 2001ean baino 127 milioi euro gehiago. Kopuru horrek hiru partida nagusi izan zituen. Batetik, gastu arruntean, 671,7 milioi euro (%73) zerbitzuen gastuak ordaintzeko, eta gastu arrunt horren erdia baino gehixeago (340,6 milioi euro) langileria-gastuak ordaintzeko. Beste batetik, familientzako transferentzien programak 202,5 milioi eurora iritsi ziren (%22). Atal horretan sartzen dira, besteak beste, pobrezia-aren aurkako borroka-plana finantzatzeko funtsak (Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eta Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarrerak), Ezgaiak Gizarteratzeko Legearen Laguntzak eta Gizarte Ongizaterako Funtsak, hots, adina edo ezintasuna dela kausa laneratu ezin dutenentzat eta beren oinarrizko beharrak asetzeko besteko diru-sarrerarik ez dutenentzat ematen diren laguntzak. 2002. urtean sisteman sartu ziren jaiotzengatik ematen diren laguntzak, seme-alabak dituzten familientzako laguntzen planak arauturik. Azkenik, 41,5 milioi euro bideratu ziren kapital-gastuetarako (%5).

8. grafikoa. Gastuak, izaeraren, titulartasunaren eta lurraldearen arabera (%2002)



Guztizko gastua %16,1 hazi zen 2001. urtearen aldean. Gastu arrunta %14,4 igo zen; familientzako transferentziak, %23,1; eta inbertsioa, %11,7. Familientzako transferentziak hainbeste igo izanaren arrazoia da, batik bat, Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarreretan eginiko ahalegina (91,9 milioi euro), 2002an %31 gehitu baitziren (alegia, bi urtean %73,4 gehitu ziren, guztira). Programa sortu zenetik, Eusko Jaurlaritzak baino ez zituen finantzatu Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarrerak (Oinarrizko Errenta delakoa), baina 2002an foru-aldundiek funtsekin parte hartu zuten, Oinarrizko Errentaren osagarri gisa, Gutxieneko Bermearen Laguntza-prestazioaren bidez, eta funts horiek guztizkoaren %10 izan ziren. Azkenik, Familientzako bestelako transferentziak atalean izan zen gehikuntza (%101) aipatu behar da. Horren arrazoia da atal horretan sartu zirela, Eusko Jaurlaritzak finantzaturiko plan berriaren baitan, jaiotzengatik eman ziren laguntzak; guztira, 14 milioi euro.


Gastua honela banatu zen zentroen eta entitateen titulartasunaren arabera: %62 sare publikoan, eta gainerako %38 titulartasun pribatuko zentro eta entitateetan. Lurraldeka, alde nabarmenak daude: Arabak zuen zentro publikoen sare indartsuena, eta gizarte-zerbitzuak ordaintzeko erabili zuen herrialde-gastu osoaren %80 hartu zuen sare horrek. Beste muturrean Gipuzkoa dago, non sare publikoaren gastua lurralde horretako guztizko gastuaren %55 izan baitzen. Bizkaian, azkenik, zentro publikoetako guztizko gastuak %60 hartu zuen.

Gastuaren osaerak argi eta garbi uzten du gizarte-zerbitzuen antolaketa ezberdina dela herrialde bakoitzean. Arabak alde handiak ditu, Gipuzkoarekin eta Bizkaiarekin erkatuta. Arabako gastuaren

%39 zentro publikoetako langileria-gastuak ordaintzeko erabili zen; Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, gastu hori %16koa eta %14koa izan zen, hurrenez hurren. Erakunde publikoek familiei laguntzeko egin zituzten transferentziek, Araban, egin zen gastuaren %19 hartu zuten; Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, kopuru hori %45 eta %30 izan zen, hurrenez hurren.


Zentro-motaren arabera, gastuaren ehuneko handiena egoitza-zentroek (%34) eta lanbide-zentroek eta enplegu-zentro bereziek (%16) bildu zuten. Bestalde, entitateetako zerbitzu nagusiek guztizko gastuaren %35 bildu zuten, haiek hartu baitzuten familientzako transferentzien %98.

9. grafikoa. Gastuak, zentro-motaren arabera (%2002)



(*) Lanbide-zentroak eta enplegu-zentro bereziak.

10. grafikoa. Gastuak, biztanleri motaren arabera (%2002)



Arreta emandako biztanleria-motaren arabera, guztizko gastuaren %37 biztanleria osoarentzat izan zen, batez ere banakako laguntzen eta etxeko laguntzen bidez (horiek guztizko gastuaren %22 eta %5 hartu zuten, hurrenez hurren). Gastu horiek biztanleria osoarentzat ematen dira, oro har, arlo horretan gizarte-talde asko (zaharrak eta ezgaituak bereziki) dagoelako. Hurrengo tokian, zaharrentzako (%29) eta ezgaituentzako (%24) baliabideak daude; gainerako biztanleria-taldeek guztizko gastuaren %10 hartu zuten.

1.4. Sistemaren finantzaketa


Gastu gehiena (%70) diru publikoaren bidez finantzatu zen 2002. urtean. Hain zuzen ere, gizarte-zerbitzuen sistemaren finantzaketa-iturri nagusiak hiru lurraldeetako foru-aldundiak izan ziren (%37). Udalek eta Eusko Jaurlaritzak antzeko ekarpenak egin zituzten, %14 eta %17, hurrenez hurren.


Zehaztu behar da, sistemaren finantzaketari dagokionez, aztertutako arloaz kanpokoak diren beste partida batzuetatik datozen sarrerak kontuan hartzean, Euskal AEn sarrera horiek kudeatzen dituen entitatearen funts propioetat hartzen direla. Ildo horretan, administrazio zentralaren funts gisa adierazten diren funtsetan, helburu jakina duten diru-laguntzak baino ez dira sartu, hala nola INEMek enplegu-zentro berezietarako ematen dituenak.

Iturri pribatuaren bidez, gainerako %30 finantzatu zen; finantzaketa pribatu horretan sartu dira familiak (erabiltzaileek eta dohaintzek %14 osatu zuten), zerbitzu-eskaintzaz besteko salmentak (%12), eta, azkenik, erakunde pribatuen ekarpen garbiak (%4).

Lurraldez lurralde, Arabak izan zuen berriro ere finantzaketa publiko handiena (%80). Hurrengoa Bizkaia izan zen, %71rekin. Azkenik, Gipuzkoak finantzaketa publikoaren mailarik apalena izan zuen, %63. Alde horren azalpena, berriro ere, herrialde horretako sare pribatuan enplegu-zentro bereziek duten garrantzian datza.

11. grafikoa. Finantzaketa, jatorriaren, titulartasunaren eta lurraldearen arabera (%2002)



12. grafikoa. Finantzaketa, izaerari jarraiki, tipologiaren arabera (%2002)


(*) Lanbide-zentroak eta enplegu-zentro bereziak.

Sarrerren izaerari begira, %24 salmentak eta prestazioak izan ziren, eta %38, diru-laguntzak; dohaintzen bidezko eta gainerako sarrerek %3 hartu zuten; azkenik, entitateek ekarritako funts propioek gastua finantzatzeko behar izan zen gainerako %35 gehitu zuten. Finantzaketa-eskema hori, oro har, hiru lurraldeetara hedatu daiteke. Hala ere, Gipuzkoan, salmenta eta prestazioengatik finantzaketa altuxeagoa (%32) da. Izan ere, ezgaituentzako lan-zentroetan (Gipuzkoan oso errotuta daude) salmenta gehiago izaten da, hots, %20; Bizkaian eta Araban, aldiz, kopuru hori %9koa eta %6koa da, hurrenez hurren. Erabiltzaileei eskainitako prestazioengatik lorturiko sarrerak antzekoak dira hiru lurraldeetan, %12 inguruko ehunekoekin.

Zentro publikoen sarea, oro har, foru-aldundien (%45), udalen (%21) eta Eusko Jaurlaritzaren (%24) bitartez finantzatu zen. Zentro publikoen finantzaketa-egitura antzekoa da hiru lurraldeetan, udalen partaidetzaren aldetik. Bizkaian, bestalde, Eusko Jaurlaritzaren eskutik jasotako finantzaketa handiagoa izan zen (%31), eta txikiagoa lurraldearen aldetik jaso zuena (%42). Lortutako finantzaketa publikoak, oro har, %92 osatu zuen, eta iturri pribatuetatik etorri ziren sarrerek, gainerako %8. Sarrera pribatu gehienak salmenten eta prestazioen bitartez lortu ziren. Honako aldaketa hauek izan ziren, lurraldeen arabera: Araban eta Gipuzkoan, salmenten eta prestazioen bidez lortutako sarrerek %10 eta %12 osatu zuten, hurrenez hurren; Bizkaian, zifra hori %5ekoa izan zen.

Zentro pribatuen finantzaketaren %34 administrazioak emaniko diru-laguntzen eta itunen bidez lortu zen. Sarrera-iturri publiko nagusiak honako hauek izan ziren: aldundiak (sarrerren %23 ekarri zituzten); eta gainerako administrazioak, udalak, Eusko Jaurlaritza eta administrazio zentrala (gainerako %11 ekarri zuten, oso antzeko kopurutan). Era berean, ekarpen pribatuarekin gainerako %66 finantzatu zen. Sarrerren izaerari jarraikiz, erdia salmenta eta prestazioetatik etorri zen; %36 diru-laguntza eta itunetatik (oro har, administrazio publikoekin egindako itunak); partikularrek egindako dohaintzek %5 osatu zuten; beste sarrera batzuek, %2; eta erakundeen beren funtsek, gainerako %7.


2. Egoitzak

2.1. Zentroak eta plazak

Azterlan honen ondorioetarako, egoitzak oso zentzu zabalean hartu dira; hau da, arreta (arreta etengabea izan zein ez), ostatua, mantenua eta bestelako zerbitzu osagarriak eskaintzen dituzten zentroak. Halako zentroak mota askotakoak dira (etxebizitza funtzionalak, egoitzak, harrera-zentroak, aterpetxeak, tutoretzapeko etxebizitzak...) beren jarduerak eskaintzen dizkieten gizarte-taldean beharrezan ere askotarikoak baitira (adingabe babesgabeak, tratu txarrak jasan dituzten emakumeak, gauza diren edadetuak, gauza ez direnak, ezgaituak psikiko sakonak, autistak, mugimen-urrituak, etxerik gabekoak, immigranteak, drogazaleak, GIBak jotako pertsonak...).


Gizarte-zerbitzuen sistemaren baitan halako zentroek duten garrantzia kontuan izanda, arreta eman zaion biztanleria-motaren arabera emaitza nagusien kapitulu espezifikoak sartu dugu estatistikan. Aldagai horrek gizarte-talde komunak hartzen ditu.

13. grafikoa. Egoitza-plazak, titulartasunaren, lurraldearen eta biztanleri motaren arabera (%2002)



Euskal AEko egoitza-eskaintza 633 egoitzak kudeatu zituzten 335 entitateen inguruan egituratu zen. Hala, 17.188 plaza eskaini ziren, eta 15.564 erabiltzailerik eman zitzaizkien arreta; hots, kopuru erlatiboetan, mila biztanletik 8 plaza eskaintzen ziren.

Egoitzen artean, 239k (%38) titulartasun publikoa dute, eta 394k (%62) pribatua. Egoitza publikoetan, 7.090 plaza eskaintzen dira, eta pribatuetan, 10.098. Horrenbestez, sektore pribatuak zentro gehiago ditu, baina, eskaintako plazen kopuruari begira, aldea ez da hain handia, egoitza publikoak handiagoak direlako. Lurraldeen aldetik, Araban 142 egoitza zeuden, gehienak publikoak (%61); guztira 3.119 plaza eskaintzen ziren. Bizkaian 297 egoitza zeuden, gehienak (%82) pribatuak; guztira 8.467 plaza eskaintzen ziren. Gipuzkoan, 194 egoitza zeuden, eskaintza orekatuagoarekin (%51) zentro publikoak ziren, eta %49 pribatuak), eta 5.602 egoitza-plaza zeuden; horietatik, %60 publikoak.

14. grafikoa. Egoitza-plazak, biztanleri motaren arabera (%2002)


Egoitza gehienak (320, alegia, %51) zaharrentzat ziren. Hala, 13.006 plaza eskaintzen ziren guztira (%76), eta 12.169 erabiltzaile zeuden (%78). Eskaintza horren arabera, 65 urteko edo gehiagoko 100 biztanleko, 3,4 plaza zeuden. Sare publikoan 97 zentro zeuden, 5.252 plazarekin. Aldiz, sare pribatuak 223 zahar-etxe zituen, 7.654 plazarekin

2002 urtean 881 plaza gehiago sortu ziren, 15 zahar-etxetan banatuta. Hazkunde hori 2001. urtekoa baino txikiagoa izan zen. Azken urteetan, biztanleen zahartzeak sortzen dituen aukeretan interes handia zuen enpresa-sektore bat sartu zen sisteman. Araban eta Bizkaian indar handia hartu zuen eskaintza pribatuak. Oro har, etxebizitzetan eta 30 plaza baino gutxiagoko egoitza txikietan kokatu ziren. Gipuzkoan, aldiz, zentro pribatuak ez ziren hainbeste ugaitu, baina Gipuzkoan zeuden zentroak handiagoak ziren.

Zaharrentzako egoitzetan ere ezberdintasunak ikusiko ditugu lurraldez lurralde. Arabak 66 zahar-etxe, gehienak pribatuak (%62), eta eskaintza 2.304 plazakoa zen. Plazen eskaintza orekatua zen titulartasunari dagokionez (%51 plaza publikoak, eta %49 pribatuak). Bizkaian 172 zahar-etxe zeuden, eta horietan 6.526 plaza eskaintzen ziren, hots, Euskal AEko plazen erdia. Bizkaiko eskema erabat pribatua zen; izan ere, plaza publikoak %22 baino ez ziren. Aitzitik, Gipuzkoan gehienak publikoak ziren: 82 zentro eta 4.176 plaza zeuden, eta zentroen %65 eta plazen %66 publikoak ziren.

Zaharrentzako egoitza gutxi batzuk (29 besterik ez) ziren gauza ez direnak zaintzeko, 1.978 plazarekin (%15). Gainerakoan artean, 78 gauza direnentzat ziren, eta 187 mistoak (%61), gauza direnentzat nahiz ez direnentzat.


Eskaintzen zituzten plazen kopuruari jarraikiz, hurrengoak pertsona ezgaituei arreta emateko egoitzak ziren. Hala, 94 zentro zeuden, 1.509 egoitza-plazekin. Horietatik %57 establezimendu publikoek eskaintzen zituzten. Establezimendu eta plaza gehienak ezgaituak psikikoei arreta emateko ziren, eta zentroen %15 eta plazen %18 baino ez ziren ezgaituak fisikoentzat. Talde horretako gehienak (48) etxebizitza funtzionalak ziren, ezgaituak psikiko arin eta ertainentzakoak (%51) eta 13 plaza baino gutxiagokoak; hala ere, plazen %21 baino ez zituzten hartzen. Aldiz, plaza gehien eskaintzen zuen taldea ezgaituak psikiko larri eta sakontzako 5 egoitza publikoena zen: 315 plaza eskaintzen zituzten, hots, guztizkoaren %21.

Horiez gain, haur eta gazteentzako 72 egoitza-zentro zeuden. Zentro gehienak txikiak ziren, eta etxebizitza funtzionalen taldeari zegozkion. Guztira 927 plaza eskaintzen ziren, gehienak titulartasun pribatukoak (%51).

Bastertuentzako plazak eskaintzen zituzten egoitzen taldea zen talde heterogeneoena, bai tipologiaren aldetik (gizarte larrialdiko etxeak, pasadizokoentzako aterpetxeak, terapia-komunitateak...) bai tamainaren eta arreta ematen zitzaien sektore espezifikoaren aldetik. Guztira 98 zentro ziren, eta 13 plaza baino gutxiagoko etxebizitzak ziren horien %73, gehienak titulartasun pribatukoak. Hala, 1.443 plaza eskaintzen ziren; horietatik %30 sare publikokoak, eta %70 pribatukoak.

Azkenik, emakumeei arreta emateko 48 zentro zeuden, gehienak publikoak, 303 egoitza-plazekin. Egoitza horiek txikiak izaten dira, larrialdiko etxeen motakoak.

15. grafikoa. Zahar-etxeak. Erabiltzaileak, adin-taldearen eta sexuaren arabera (%2002)




2.2. Erabiltzaileak

Egoitza zerbitzuen 15.564 erabiltzaileetatik, 12.169 zaharrak ziren. Gauza ez diren edadetuak (7.858) egoitzen erabiltzaile guztien erdia ziren (%50), eta erabiltzaile edadetuak (12.169) %65.

Zahartzaroan zeuden erabiltzaileen ezaugarriak aztertuz gero, zahar-etxeetan gehienak emakumezkoak zirela (%71) ikusten da, eta, adinean aurrera egin ahala, proportzioa areagotu egiten da. Badira aldeak lurraldeen artean, Gipuzkoan ehuneko txikiena (%67), eta Bizkaian handiena (%73). Honako hau izan zen erabiltzaileen banaketa, adinaren arabera: %18k 75 urtetik behera zituen; %39k, 75 eta 85 urte bitarte, %24k 85 eta 89 urte bitarte, eta gainerako %19 89 urte baino gehiagokoak ziren. Lurraldeak kontuan izanda, ez dago ezberdintasun handirik; hala ere, Bizkaiko zahar-etxeetan zeudenak nagusiagoak ziren: %44k 85 urtetik gora zuten; Araban eta Gipuzkoan, aldiz, %42k zuten 85 urtetik gora.

16. grafikoa. Ezgaituen egoitzak. Erabiltzaileak, adin-taldearen eta sexuaren arabera (%2002)



Bestalde, eta ezgaituentzako etxeez ari garela, %47 emakumezkoak ziren; Gipuzkoan zuten proportziorik apalena (%43). Honako hau da adinaren araberako banaketa: 25 urtetik beherakoak, %12; 25 eta 64 urte bitartekoak, %87; eta 64 urte baino gehiagokoak, %2. Egoitzetan zeuden ezgaituen artean, 35 eta 44 urte bitarte zutenek osatzen zuten talderik ugariena (%32). Oso txikia zen 65 urteko eta gehiagoko erabiltzaileen taldea, adin horretara heltzean, halakoak zahar-etxeeak erabiltzen hasten baitira.

Erabiltzaileen artean dagoen txandakatzea kontuan izanik, esan daiteke 2002. urtean zehar ia 28.000 lagunek erabili zituztela egoitza-zerbitzuak; zenbateko horrek %78 gehituko zuen erabiltzaile-kopurua. Gehikuntza hori, ia osorik, bastertuentzako zentroetatik dator, gizarte-talde horretan egonaldi laburreko egoitza-baliabideek, hala nola aterpetxeek, garrantzia handia baitute.

2.3. Egoitzetako langileak

Egoitza-zentroetako langile-kopurua 7.461 izan zen; horien artean gehienak (%85) emakumezkoak ziren. Langile horiek, jardueraren arabera, honela sailkatuko ditugu: 690 zuzendaritzakoak eta administraziokoak (%9), 1.589 zerbitzuetakoak (%21), 3.579 osasun-langileak (%48); 653 hezitzaileak (%9), eta gainerako %13 langile teknikoak eta bestelakoak; horien artean, zaintzaileak %10 ziren (667). Lanbide-sailkapenaren aldetik, klinika-laguntzaileek, zaintzaileek eta ostalaritzako eta garbiketako langileek zentroetako bertako langile guztien %68 eta emakumezkoen %74 osatzen zuten. Nahiz eta langileen azterketa zentroetako bertako langileetan oinarrituko den, ez ditugu boluntarioak ahaztu behar, euren zerbitzuak musu-truk eskaini zituzten 1.328 lagun. Era berean, erabiltzailearentzako zuzeneko arreta eskaini zuten 1.673 langile azpikontratatu ere izan ziren.


Zentroen titulartasunaren arabera, langile-kopuru osoaren %38 zentro publikoetan aritu ziren. Lurraldez lurralde, honela banatu ziren: %19 Araban, %53 Bizkaian, eta %28 Gipuzkoan.

Langile-talde horrek zaindutako biztanleria-motari dagokionez, %76 zaharren arloan ari ziren lanean, %14 ezgaituen arloan, %5 haurrentzako eta gazteentzako egoitza-zentroetan, %4 bastertuekin, eta %1, besterik ez, emakumeen arloan.

Zaharrentzako egoitzetan guztira 5.697 lagun ari ziren lanean; horien artean, %37 establezimendu publikoetan, eta gainerako %63, egoitza pribatuetan. Jarduerari dagokionez, %59 osasun-arloko langileak ziren, %22 zerbitzukoak, eta gainerako %19, administrariak, teknikariak, hezitzaileak eta bestelakoak. Zahar-etxeetako eskema horretan ikusten denez, gauza diren edadetuentsako egoitzetan zaintzaile-lanpostuak direnak, gauza ez direnen egoitzetan, oster, klinika-laguntzaileentzako lanpostuak dira. Azken horietan, hain zuzen, langileen %52 dira klinika-laguntzaileak.

Ezgaituen egoitzetan guztira 1.007 langile ari ziren lanean. Langile guztietatik, gehienek (%60) ezgaituak psikiko larri eta sakonetzako establezimenduetan lan egiten zuten.

17. grafikoa. Egoitzak. Bertako langileak, (DOB) 100 egoitza-plazako (2002)



Egoitzetako ratioa, oro har, dedikazio osoko baliokidetzako (DOB) 47 langile 100 plazako, eta horietatik 23 osasun-arlokoak ziren. Ez da alde handirik atzematen zentroen titulartasun publikoari edo pribatuari dagokionez; baina lurraldeen arabera, berriz, bazen alderik. Arabako egoitzek ratio altuagoa zuten, dedikazio osoko baliokidetzan (DOB) ari ziren 53 langile baitzituzten 100 plazako; Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, ratioa zen 47 eta 44 langile 100 plazako, hurrenez hurren.

Adierazle hori 42 zen zahar-etxetan, oro har, eta 61era igotzen zen laguntza behar zuten zaharrentzako egoitzetan.


Ezgaituen egoitzek behar zituzten langile-zuzkidurarik handienak, (69 DOBeko langile, 100 plazako); eta, bereziki, ezgaituak psikiko larri eta sakonei arreta ematen dietenek, (87 DOBeko langile, 100 plazako); zentro publikoetan 100eraino iristen zen.

Haur eta gazteen arloko egoitzetan 49ko langile-zuzkidura zegoen 100 plazako, 26koa bastertuentzako egoitzetan, eta 33koa emakumeentzako zentroetan.


2.4. Egoitzen gastua

Egoitza-zentro horiek mantentzeko ahalegin ekonomikoa 309,3 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtean baino %12 gehiago. Zentroen titulartasunaren arabera, honela banatu zen kopuru hori: %55 zentro publikoetan, eta %45 pribatuetan. Egoitzen guztizko gastutik, 294,1 milioi euro (%95) gastu arruntekoak izan ziren. Langileria-gastuen atala guztizko gastu arruntaren %55ekoa izan zen, eta langileria-gastuen %73 zahar-etxeetarako izan zen. Lurraldez lurralde, guztizko gastuaren %22 Arabari egokitu zitzaion, Bizkaiari %48, eta Gipuzkoari %30.

18. grafikoa. Egoitzak. Gastuak, izaeraren arabera (%2002)




19. grafikoa. Egoitzak. Gastuak biztanleri motaren arabera (%2002)




Egoitzen guztizko gastua, zaindutako biztanleria-motaren arabera, honela banatu zen: %75 zahar-etxeetan; %13 ezgaituen zentroetan; %7 haurren eta gazteen egoitzetan, eta gainerako %5, bastertuentzako eta emakumeentzako egoitzetan.

20. grafikoa. Egoitzak. Gastuak, izaeraren, titulartasunaren, lurraldearen eta biztanleri motaren arabera (%2002)



Egoitza-plazako, batez besteko gastu arrunta 17.246 eurokoa izan zen. Lurraldez lurralde, Araban gastu arrunta 21.353 eurokoa izan zen egoitza-plazako, hots, Bizkaian eta Gipuzkoan baino heren bat handiagoa. Zentroyen titulartasunaren arabera, indize hori 23.268 euro izan zen, egoitza-plazako, sare publikoan, eta 13.008 euro zentro pribatuetan.


21. grafikoa. Gastu arrunta, plazako, zahar-etxeetan (2002)



Zahar-etxeetako plaza bakoitzeko gastu arrunta 16.920 eurokoa izan zen; egoitza mistoetan —gauza diren eta ez diren edadetuenezako egoitzetan— gastu arrunta berdintsua izan zen. Ratioa, hala ere, nabarmen aldatzen da egoitza-motaren arabera, eta %43 gehitzen da gauza ez direnentzako egoitzetan (24.217 euro), eta %50era jaisten da gauza direnentzako egoitzetan (8.441 euro).

Ezgaituen arloan, ratioa 25.304 eurora iritsi zen plaza bakoitzeko, eta alde nabarmenak izan ziren zaindutako ezgaitasun-motaren arabera: ezgaituak psikiko larri eta sakonentzakoetan, 37.000 eurotik gorakoa izan zen ratioa; ezgaituak fisikoen egoitzetan, berriz, ia 14.000 eurokoa.

Haur eta gazteen egoitzen arloan, gastua 23.904 eurokoa izan zen, plaza bakoitzeko. Baliabide gutxiago behar dutenez, ratorik apalena emakumeei arreta emateko egoitza-zentroetan izan zen, plazako 5.046 euro baino ez baitziren gastatu.


22. grafikoa. Plazako gastua (arrunta) ezgaituen egoitzetan (2002)


DOBeko langilearen batez besteko ordainsaria 24.151 eurokoa izan zen egoitzen multzo osoan; lurraldez lurralde, handiena Arabakoa izan zen, alegia, 31.039 eurokoa. Zentroen titulartasunaren arabera, ratorik altuena sare publikoari egokitu zitzaion, 37.428 euro; apalena, berriz, zentro pribatuei, 15.863 euro.

Zaindutako biztanleria-motari dagokionez, berriro ere alde nabarmenak ageri dira: 15.840 euro emakumeentzako egoitzetan, eta beste muturrean, ezgaien egoitzetan, 32.302 euro. Zahar-etxeetan, batez besteko ordainsaria 22.609 eurokoa izan zen DOBeko langileko.

2.5. Egoitzen finantzaketa

Egoitzak honela finantzatu ziren 2002. urtean: gehiena (%63) diru publikoaren bidez; erabiltzaileek gastuaren %30 ordaindu zuten jasotako prestazioengatik; eta gainerako %7 erakunde pribatuek eta partikularren dohaintzek jarri zuten. Ekarpene publikoen atalean, aipatzekoak dira foru-aldundien (%52) eta udalen (%10) funtsetatik etorri zirenak.

23. grafikoa. Egoitzak. Finantzaketa, titulartasunaren eta biztanleri motaren arabera (%2002)


Lurraldeen arteko aldeari dagokionez, finantzaketa publikoa handiagoa izan zen Araban (%75); Gipuzkoan, aldiz %64koa izan zen, eta Bizkaian %57koa. Bestalde, salmentek eta prestazioek sortutako sarrerak handiagoak izan ziren Bizkaian eta Gipuzkoan (%32), Araban baino (%23).

Finantzaketa-iturri nagusiak egoitzen titulartasunaren arabera aldatu ziren. Egoitza publikoetan, finantzaketaren %19 salmenten eta zerbitzuen bidez egin zen; gainerakoa ekarpen publikoen bidez finantzatu zen. Egoitza pribatuetan, salmenten eta zerbitzuen bidezko finantzaketa %44koa izan zen; administrazio publikotik etorri ziren diru-laguntzen eta itunen bidez %41 finantzatu zen; erakunde pribatuek %12 ekarri zuten, eta, azkenik, dohaintzetatik zetozen beste sarrera batzuek gainerako %3 baino ez zuten ekarri.

Finantzaketaren osaera oso ezberdina da —23. grafikoan ikusten denez— baliabidea zein biztanleria-motarentzat den: zaharren arloan da txikiena ekarpen publikoa (%55), familien ekarpena, berriz, handiena, salmenta eta zerbitzuen bidez batez ere (%38); beste muturrean, finantzaketa publiko handiena haur eta gazteen arloan dago, ekarpen hori %96koa baita.